Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Hilario Lekuona Mitxelena

Urnieta, Gipuzkoa (1931-2017)



Aurkibidea

Biografia



Oiartzunen jaio zen eta 5 urte besterik ez zituela, ama alargun gelditu zen. Artikutza aldera joanda dagoen Arandaonsoro baserrian morroi egon zen 8 urte zituenetik 11 bete zituen arte, ardiak umatzeko denboraldian laguntzeagatik. Amak, alargundu eta handik urte batzuetara, beste gizon batekin ezkontzeko hitza eman zuen eta Urnietara joan ziren bizitzera. Kaletik oso hurbil zegoen baserri batean pasa zuen gainerako haurtzaroa; Afrikan soldadu zegoela, ama hil zen. Soldaduskatik etorri zenean, gau-eskolan ibili zen eta handik aurkitu zuen "manesitas navarras" lantegian lana. Bertan erretiratu zen eta Urnietan bizi izan da gerora ere.

Zintak

URN-028

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-02-18
- **Iraupena**: 113 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Lekuona abizenak Irunen jatorria

- **Erref**: URN-028/001
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Izen-abizenak. Mediku batek esan zion Irungo jatorria duela Lekuona abizenak. Hilarioren gurasoak Oiartzungoak ziren. Semeari ere Hilario jarri zion izena. Orain Arkaitza, Pagoa... jartzen dira, dio umorez.

2. "Bigarren ezkontza da konpontza"

- **Erref**: URN-028/004
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
"Bigarren ezkontza da konpontza" esan ohi da, eta egi osoa omen.

3. Ez du asko sufrituaren penarik

- **Erref**: URN-028/006
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:11:29. **Bukatu**: 00:12:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Asko sufritu izan du Hilariok bizitzan, baina osasuntsua izan da eta beti aurrera atera da. Diruz justu ibili da, baina ez du horren damurik. Beti egingo omen du aurrera edozein lekutan. Lekuonatarrei soldadu Afrikara joatea egokitzen omen zitzaien. Oraingo "soldadu ez joan beharrak" harrapatu izan balu, hobe. Hogeita hamabi hilabete pasatu zituen soldadutzan.

4. Zortzi urterekin morroi

- **Erref**: URN-028/008
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:15:12. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Morroi joan zen zortzi urterekin Oiartzungo Altzibar auzoa eta Artikutza bitartean dagoen baserri batera. Artzain. Ama bigarren txandan Urnietara ezkondu izan ez balitz Oiartzuar osoa izango zen orain.

5. Artzain-lanetan mendian

- **Erref**: URN-028/010
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:17:25. **Bukatu**: 00:19:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Hiru urte egin zituen morroi, zortzi urtetik 11 urtera arte. Ardien joerak eta Hilarioren morroi-lanak. Astoarekin joaten zen mendira. Beste etxe baten lo egin, ardiak jetzi eta hurrengo egunean itzultzen zen.

6. Eskolara gogoz kontra

- **Erref**: URN-028/011
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:19:03. **Bukatu**: 00:20:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Aizateko eskolan ibili zen denbora labur batez. Oso gutxi joan da eskolara. Gogoz kontra joaten zen; zenbat eta gutxiago joan, orduan eta gogo gutxiago. Nahiago artajorran edo itaurrean eskolara baino. Urnietara etorrita, Xoxokako eskolara eta gau-eskolara joan zen noiz edo noiz.

7. Gaztetatik jubilatu arte Magnesitas Navarras lantegian

- **Erref**: URN-028/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:20:52. **Bukatu**: 00:21:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Magnesitas Navarras lantegian hasi zen hamasei urterekin eta erretiroa hartu arte jardun zuen han. Lantegian sartzeko ez zioten inolako azterketarik egin, ez medikurik eta ez bestelakorik.

8. Magnesitarekin zeharo aberastu jabea

- **Erref**: URN-028/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:22:45. **Bukatu**: 00:23:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Magnesita harriarekin jardun zuten bere denbora guztian baina aurretik "dolomita" izeneko beste harri mota batez ibiltzen omen ziren. Oso harrobi ona aurkitu zuten Nafarroan eta zeharo aberastu zen jabea harekin.

9. Pasaiako portuan zamalanen begirale

- **Erref**: URN-028/016
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:29:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Hilariok Hernaniko lantegian egiten zuen. Harria txikitu, zakutan sartu eta banatu egiten zuten, Legazpiko Patricio Echeverria lantegira, esaterako. Atzerrira ere bidaltzen zuten materiala Pasaiako portutik. Zamalanen begirale gisa ere ibilia da portuan. Zamalanak nola egiten ziren.

10. Zubiriko lantegian lanean

- **Erref**: URN-028/017
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:29:35. **Bukatu**: 00:31:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:
Zubiriko lantegian ibili zen denboraldi batez. Astea han pasatzen zuen. Lan asko egin behar izaten zuen baina ongi ordaintzen zioten.

11. Seme kamioilariari lagun egiten jubilatu eta gero.

- **Erref**: URN-028/019
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:33:05. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Jubilatu berritan etxetik atera gabe egon zen luzaroan, nahiko abailduta. Gero hasi zen irteten eta bere egoeran zegoen batekin tratuan. Seme kamioilariari bidaietan laguntzen zion.

12. Maizorria bildu eta ontzen

- **Erref**: URN-028/021
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:36:15. **Bukatu**: 00:38:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Oiartzunen morroi egon zenean, arto-lanak nolakoak ziren kontatzen du: "maizorria" kendu (soildu) eta abar. Galdorra eta tontorra ere kentzen zitzaizkion bere garaian. Maizorria, ongi ondutakoa bazen, oso ona zen ganaduentzat. Urnietan ez dago ohiturarik maizorria egiteko; baba artoarekin nahasi hartzen denez, ez zaio hostorik kentzen. Artzain-etxetan denetik hartu behar omen da.

13. Gerra Oiartzunen

- **Erref**: URN-028/023
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:40:42. **Bukatu**: 00:42:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Oso txikia zen, baina fresko du gerra denborako oroitzapena. Hegazkin bat ibili zen paperak botatzen, eta ume guztiak korrika haiek hartzera. Oiartzuar askok egin zuen alde; Artikutza aldera, dio Hilariok. Bi edo hiru eguneko kontua izan omen zen gerra Oiartzunen.

14. Jeneral baten hiletak Oiartzunen

- **Erref**: URN-028/024
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:42:41. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Francoren aldeko jeneral bati Oiartzunen egin zitzaion hileta-desfilea oso gogoan du. Hilerrian hilobiratu zuten. Urnietako Onddi mendian eta Santa Barbaran "gorriak" omen zeuden, eta Xoxokako plazan zeuden francozaleen mandoak hil omen zituzten.

Transkripzioa
-Oiartzunen gooratzen naiz ni nola jeneralen bat edo ez dakit zer zala hilla. Jesus!, ze despilliak ein zizkien eta. Han da nunbaitt'e Oiartzungo kanposantu hartan sartua. Ja-ja, honezkero earki beratua eongo da gizajua. Gu mutil koskorrak giñala zan eta, nik ordun zer eukiko nittun? Zazpi bar urte. Holakon bat.
-Ze aldetakua zan akordatzen zea, ze bandotako jenerala?
-Ez, ez naiz goatzen baiño espaiñola zala bai. Españiko bandera, oaingo txorixo zea klasia zun eta. Bestiak diferentia ibiltzen zuen. "Gorrik" deitzen ziyen hemen batzuei. Hemen gorri hoitakuak Santa Barbaran egondu omen zien batzuk eta bestiak Onddin'e bai, ta Xoxokako plazan sekulako mando pila bota omen zuen bestieiri. Gorritakuak bestieiri bota omen zizkien. Sekulako pila, e, esaten due; ni ez nitzen ordun hemen. Gu, klaro, Oiartzunen zala hasi zan gerra eta. Hemen denboa gutxi in zun gerrak, e. Hemendik alde in zuen norabaittea. Hor Gernika alde eta hoitan deskargak-eta in zittuen eta hor zeatu zien.

15. Fusilatuak Oiartzunen

- **Erref**: URN-028/025
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:44:00. **Bukatu**: 00:45:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Berak entzunda duenez, Karrika auzoko paraje batera ekartzen zituzten atxilotuak fusilatzera. Olaztitik gora (Urbasan) dagoen amildegitik behera botatzen zituztela ere entzuna du.

16. Gauza ona kendu eta txarra eman gerra ostean

- **Erref**: URN-028/027
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:49:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ostean "etxean zenuen gauza ona kendu eta txarra ematen zizuten". Esaterako, etxera etorri eta hurrengo egunean txahala hiltegira eramateko agintzen zuten. Gernika aldean gertatu zena oraindik eta okerragoa izango omen zen.

17. Zazpi urterekin ardiak jeizten

- **Erref**: URN-028/028
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:49:45. **Bukatu**: 00:51:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Zazpi urterekin, asto txikia hartuta, ardiak jezten jarduten zuen Oiartzungo baserrian. Hango aitonak laguntzen zion. Ilunabarrean goiko baserrira igo, ardiak jetzi, lo egin, goizean berriz jetzi eta behera etortzen zen.

18. Morroi ibili zeneko oroitzapenak

- **Erref**: URN-028/029
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:51:40. **Bukatu**: 00:53:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Emakume batek egiten zuen gazta. Erdal jatorrikoa omen zen baina euskaraz ondo zekiena. Maindire zuria etxe aurrean ipintzea zen seinalea ardiak etxeratzeko. Oiartzabal Erdikoan egon zen morroi. Etxekoandrea oso ona omen zen

19. Ote xehetua, ganadu-jaki ona

- **Erref**: URN-028/030
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:53:56. **Bukatu**: 00:56:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Ote jotzen aritzen ziren baserrian. Ote txikitua arbiarekin nahastuta oso ona omen da ganaduarentzat. Edozein otek ez du balio. Bi klase dira eta gogorrenak, zuriak, balio du, beltzak, berriz, ez.

20. Otea mozten eta garraiatzen

- **Erref**: URN-028/031
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:56:12. **Bukatu**: 00:57:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Otea nola mozten, biltzen eta garraiatzen zen.

21. Otea jotzen (1)

- **Erref**: URN-028/032
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:57:35. **Bukatu**: 00:59:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Trabesa izeneko mazoaz jotzen zen otea. Nola jotzen den azaltzen du. Sekulako koipea botatzen omen du. Bi trabesa batera erabiliz jotzen da otea. Oraindik gogoan du baserriko senar-emazteen izena.

22. Otea jotzen (2)

- **Erref**: URN-028/034
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:01:20. **Bukatu**: 01:02:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Kolpea txandatuz jotzen da otea. Bi trabesarekin hobeto jotzen da batekin baino.

23. Asun-zapindua erreumaren kontra

- **Erref**: URN-028/036
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:02:45. **Bukatu**: 01:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Nagusia erreumarekin egoten zen beti. Hilariok asunak hartu eta astindu egiten zuen, nagusiaren aginduz.

24. Ardiari erditzen laguntzen

- **Erref**: URN-028/037
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 01:04:00. **Bukatu**: 01:05:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardiari erditzen laguntzen ikasi zuen. Arkumeari, jaiotakoan, mingaina garbitzen zaio.

25. Behi mozkorra

- **Erref**: URN-028/038
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 01:05:36. **Bukatu**: 01:07:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Dolarea zuen baserriak. Sagarra jo eta dolarean ahal zuten dena estututakoan, azken pasada behi baten laguntzaz egiten zuten. Pertikari lotu eta hark ematen zizkion azken estutuak. Behin, ontzitik sagardo edanaldia egin zuen behiak eta mozkor galanta harrapatu zuen.

26. Gaitzetsitako arkumea maitatzeko trikimailuak

- **Erref**: URN-028/039
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 01:07:56. **Bukatu**: 01:08:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardi batek bere umea gaitzesten zuenean (titia eman nahi ez zionean), sagardo tinan sartzen zituzten ama eta umea, eta gehienetan lortzen zuten maitatzea, baina ez beti. Hildako arkumearen larrua ere jartzen zen.

Transkripzioa
-Ardia izango dezu zuk seguraski, ardiekin ari ginen lehenago eta. Ardiak gaitzetsa egiten duenian umia...
-A, hoixe nun. Tinilla hartan sartzen giñun. Arkume arra baldin bazan, beste ardin bat umia kendua txarra zulako, eta ume-hazitzaile ona bea, itten giñun ez bazun hartu nahi tinilla hartan sartu biyak. Ta han hartuazi beai. Ta askotan batzuk ez zuen hartu nahi izaten, eta lehango bean hildako umian larruba jarri gaiñian eta hola hartzen zuen (barreak).
-Usaitik?
-Usaitik eta, bai. Ez zuen hartu nahi izaten. Batzuek aixa hartzen zuen, bestiek ez. Bean larruakin bai, bean larruakin bastante. Derrigorreko hortan'e azkeneako jartzen zien batzuk, e, baiño denboa askua zeatuta.

27. Ardi jezten

- **Erref**: URN-028/040
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:08:52. **Bukatu**: 01:10:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardia jeztea oso lan polita omen da. Orain oso erraza eta garbia da makinarekin. Ardi asko bere kasa etortzen dira jeztera.

28. Ukenduak eta garatxoen kontrako erremedioak

- **Erref**: URN-028/042
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 01:11:15. **Bukatu**: 01:15:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Errape-minarentzat ukendu onak erabiltzen ziren lehen. Pertsonentzat ere baziren ukenduak. Emakume ukendugile bati buruzko komentarioak. Garatxoen kontrako erremedioa, zapoa bizirik aurkitu eta poto batean lurpean sartzea. Zapoa desegiten zenean garatxoak joan egiten omen ziren. Berari garatxoak nola kendu zizkioten.

29. Soinujole gaztetan

- **Erref**: URN-028/045
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 01:16:09. **Bukatu**: 01:17:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Soinua jotzen zuen Hilariok gaztetan. Hernion izan zen soinua jotzen hiru urtean jarraian. Goizuetan ere ibilia da inauterietan oilasko biltzen. Oso ibilera nekagarria, baserriak sakabanatuta daudelako.

30. Xoxokako erromeria

- **Erref**: URN-028/047
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 01:18:25. **Bukatu**: 01:20:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Ilusio handiko erromeriak izaten ziren ordukoak. Xoxokan 10-12 lagun biltzen ziren bakarrik, baina hala ere sekulako giroa izaten zuten. Festetan soinujole onak ekartzen zituzten. Zenbaiten izenak. Xoxokakoak ez zuen asko iraun. I

31. Soinua jotzen

- **Erref**: URN-028/049
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 01:20:45. **Bukatu**: 01:23:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Aldameneko baserrian bizi zen soinujole bat, eta harengana joaten zen ilunabarrero ikastera. Belarriz ikasten zuen, noski. Soldadutzara joatean utzi zuen soinua. Ez da oroitzen nola eskuratu zuen, epeka erosita, beharbada. Bigarren eskukoa zen, baina botoiak aldatu zizkion eta oso polita geratu zen. “Andre Madalen eta horrelako pieza errazak jotzen zituen.

32. Herniora soinuarekin

- **Erref**: URN-028/050
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 01:23:58. **Bukatu**: 01:25:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Hernioko egunean kamioian joaten ziren Andazarrateraino eta handik gora oinez. “Gustoko tokin aldapik ez”. Panderojolerik ez zuen erabiltzen. Gabon-eskean ere ibiltzen ziren Urnietan.

33. Jaiegunetan Oialumera edo Hernanira

- **Erref**: URN-028/051
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:25:20. **Bukatu**: 01:26:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Oso herri txikia zen orduan Urnieta eta ez zen izaten bilerarik. Jendea kanpora joaten zen festara, Oialumeko erromeriara gehienak, eta Hernanira gutxi batzuk. Baserritarrak Oialumera. Apaizak ez zuen Urnietan dantza loturik uzten.

34. Leitzara mendiz

- **Erref**: URN-028/053
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:27:38. **Bukatu**: 01:28:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Mendizalea da Hilario. Leitzara sarri joan izan da mendiz. Azkenengo aldian bi seme eta bi suhirekin joan zen. Ibilaldia nola egin zuten kontatzen du.

35. Aballarriko elezaharra

- **Erref**: URN-028/055
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 01:33:00. **Bukatu**: 01:34:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Aballarri izeneko lekuan plaka bat jarrita dago hildako hernaniar baten omenez. Aballarriri buruzko esaera edo elezaharra: Buruntza menditik harria botatzen hasi zen Sanson, Adarreko Puntara jaurti nahi zuen, baina behi-kakatan irrist egin eta orain dagoen lekuan erori zen, Aballarrin.

Transkripzioa
-Goian Aballarri jartzen dun batian, Aballarri ta bestia..., Aballarri deitzen zaio Sansonek botatako harriya emen dala edo. Haundi bat!, harri haundi bat kuadratua ta; haren deitzen zaio, eta handik honuntza etorri ta zea batian jarriya do Hernanikuan mutillan zea jartzen du ta oso ondo kuidatzen duena. Alanbriakin eta jarriya do, beti loriekin eoten da urte guzin. Bai, ta harriyan zean daka plaka jarriya, ormigoiakin hartuta. Zein zan eta nola-noiz hil zan eta dana.
-Aballarri hoi zer zan ba?
-Aballarri esaten due garai baten Buruntzan hemengo mendiya Buruntza

da, ta ein emen zun abaillakin Sansonek harriya hara bota bihar zula, ta irrista!; Adarreko puntaa botatzeko idea emen zun Buruntzati, ta behi-kaketan irritatu zalako eroi emen zitzaiyon hor harriya. Ja-ja, esaera du zean, Aballarri hor, hor eroi zan eta jarri Aballarri izena. Taberna're bado hemen Aballarri.
-Zertarako nahi zun bota ba harri hori?
-Sanson fuerzudo bat zalako, indartsua zalako. Jendiak ateatako zea izango da dena. Istoriya izango da.

36. Euskara, nere hizkuntza

- **Erref**: URN-028/057
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 01:38:12. **Bukatu**: 01:40:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Bere hizkuntza, berak maite duen hizkuntza da euskara. Orain asko indartzen ari da eta horrek izugarrizko poza ematen dio. Oraingo euskara hau oso garbia bilatzen du. Euskarazko egunkari eta aldizkariak irakurtzen ditu.

37. Etorkin erdaldunekin borrokan

- **Erref**: URN-028/059
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 01:41:52. **Bukatu**: 01:44:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Erdaldun asko dago Urnietan orain. Badira euskaraz ikasi duten erdaldunak. Trenbidea konpontzera etorri zirenean sartu ziren erdaldunak Urnietara. Istiluak izaten zituzten garai batean erdaldunekin, harrika-eta egiten zuten neska kontuengatik.

38. Berorika sekula ere ez: “behorrak mendian ibiltzen dira”

- **Erref**: URN-028/061
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 01:45:05. **Bukatu**: 01:47:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Sekula ez du berorika egin. Oiartzungo apaiz batek zera esan zion behin: “behorrak mendian ibiltzen dira”. Lagun artean hika, baina familiakoei zuka. Familian zuka zergatik nagusitu zen. Neskei beti zuka egin izan die.

39. Oiartzun eta Goizuetako euskarek antza

- **Erref**: URN-028/062
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:47:20. **Bukatu**: 01:48:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Ondo konpontzen da Goizuetako eta Aranoko euskararekin. Iratzearen hiru izenak: iratzea, iñostorra eta garoa.

40. Garotara oso urrun

- **Erref**: URN-028/064
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 01:49:40. **Bukatu**: 01:51:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Inostorra (garoa) ekartzera oso urrun joaten zen orduan. Ferrakgaltzen zituzten askotan abereek. Ferratzaileari ordaintzeko dirurik ez eta hala ere inostorretara joan behar "kasakristora". Buru gutxiko baserritar asko omen zegoen lehen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com